

BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

2790

364/2013 DEKRETUA, ekainaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako sailetakoa eta erakunde autonomoetako lanpostuen zerrendak onartzen dituen Dekretua aldatzeko dena (behin-behineko langileak).

Urriaren 14ko 226/1997 Dekretuaren bidez, karrerako funtzionarioentzat eta lan-kontratudun langileentzat gordetako lanpostuen zerrendak onartu ziren. Dekretu hori hainbat aldiz aldatu da.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 14. artikuluan ezartzen due-nez, lanpostuen zerrendek aurrekontuetan diruz hornitutako lanpostu guztiak barne hartu beharko dituzte, eta funtzionarioentzat, lan-kontratuko langile finkoentzat eta behin-behineko langileentzat gordetakoak diren bereizi. Xedapen hori betetzeko, martxoaren 20ko 44/2007 Dekretua argita-ratu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako sailetakoa eta erakunde autonomoetako lanpostuen zerrendak onartu zituen dekretua aldatzeko buruzkoa. Dekretu horrek, hain zuzen ere, behin-behineko langileentzat gordetako lanpostuen zerrendak onartu zituen, eta apirilaren 19ko 92/2005 Dekretua ordezkatu zuen, azken hori, 2006ko urtarrilaren 12an Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salak emandako epaiaren bitartez, deuseztatu egin baitzen. Dekretu hori hainbat aldiz aldatu da; egun, apirilaren 9ko 189/2013 Dekre-tuak onartutako behin-behineko langileentzat gordetako lanpostuen zerrenda dago indarrean.

Lanpostuen zerrendak Administrazioaren barne-egiturak antolatzeko tresna gisa sortzen dira; horregatik, indarrean dauden prozeduren arabera izapidetu diren eta aldeko ebazpena eman zaien aldaketak sartu behar dira aldian-aldian, uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 18. artikulua eta Jaurleri-tzaren Kontseiluak 2002ko uztailaren 30ean hartutako Erabakia betetze aldera. Aipatutako erabaki horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren zerbitzura dauden behin-behineko langileen araubide juridiko orokorra eta egiturazkoa ezartzeko proposamena onartu zen.

Lanpostuen zerrenda honek finkatzen ditu funtsezko ezaugarriak, betetzeko eskatzen diren bal-dintzak eta lanpostuen ordainsari-erregimenarekiko beharrezkoak diren zehaztasunak, guztiak ere Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta bere Erakunde Autonomoetako lanpostuen zerrenda arautzen duen apirilaren 12ko 78/2005 Dekretuaren 5.4 artikuluan ezarrita-koaren arabera (urtarrilaren 16ko 6/2007 Dekretuaren arabera idatzera). Horrek, alde batetik, 2005eko azaroaren 18ko Epaiaren epaitzan ezarritakoari erantzuten dio, eta, bestetik, uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 15. artikuluan eta Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2002ko uztailaren 30eko Era-bakian jasotako xedapenak batzen ditu.

Ondorioz, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2013ko ekainaren 11n egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.— Behin-behineko langileentzat gordetako lanpostuen zerrendetan egindako aldaketak onartzea. Zerrenda horiek dekretu honen eranskinean agertzen dira, eta apirilaren 9ko 189/2013 Dekretuaren bidez onartu ziren.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2013ko ekainaren 11n.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.

ERANSKINA, EKAINAREN 11KO 364/2013 DEKRETUARENA

Sortu:

KODEA	DOT.	LANPOSTUAREN IZENA	SAILA	HE	ORDAINSARIA	LM	SAILKAPENA	DEDIKAZIO ERREGIMENA
5288	1	Bake eta Bizikidetzaren Planaren Koordinaziorako aholkularia	Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura	3	Zuzendaria	B	AS	% 100

KLABEAK:

LANPOSTU MOTA:

B: Berezia

SAILKAPENA:

SP: Sektoreko postua

DEDIKAZIO ERREGIMENA:

% 100